



Euskara Zerbitzua

Konstituzio plaza, 2 - Tel. 943483750 - Faxe 943483765 - udala_euskara@donostia.eus - www.donostiaeuskaraz.eus - www.donostia.eus
20003 Donostia

Euskararen Kontseilu Sektoriala - Ohiko Bilkura -

Data eta lekua:	2017ko azaroaren 16an Udaletxeko Tokiko Gobernu Batzarraren Gela
Hasiera eta amaiera ordua:	18:00-19:30

BERTARATUAK:

Talde politikoak:

LEHENDAKARITZA: Miren Azkarate_EAJ-PNV (2016 Hiriburutzako, Kulturako, Euskarako eta Hezkuntzako zinegotzi ordezkaria)

Nerea Txapartegi_EH BILDU

Aitziber San Roman_EAJ-PNV

Elkarteak, Hiritarrak eta Gizarte-ospe bereziko pertsona edo kolektiboak:

Zuriñe Gonzalez_BAGERA ELKARTEA

Oier Basurko-BATZEN

Josune Otxotorena_BERRITZEGUNEA

Sara Gonzalez_SAN SEBASTIAN SHOPS DONOSTIA

Mikel Aiestaran_GIPUZKOAKO OSTALARITZA ELKARTEA

Ander Aizpurua_KUTXABANK

Jose Javier Murua_LABORAL KUTXA

Maite Asensio_URTXINTXA ko ORDEZKARIA

Oihana San Jose_AEK

Oier Basurko_BATZEN

Euskara Zerbitzuaren langileak:

Edurne Otamendi (Zerbitzu burua)

Alex Aisa (Atal burua)

Herri Partaidetzaren langileak:

Olatz Estensoro (Herri Partaidetza Zerbitzua)

EZ ZIREN BERTARATU:

PSE-EEko ORDEZKARIA, ezin etorria adierazi du

REALEko ordezkaria, ezin etorria adierazi du

BIZARRAINeko ordezkaria

IRABAZIko ordezkaria, ezin etorria adierazi du

ULIAKO AUZO ELKARTEko ORDEZKARIA

LABeko ORDEZKARIA

Ramon Etxezarreta, ezin etorria adierazi du

Felipe Juaristi

EHUKo ordezkaria, Antonio Casado



Euskara Zerbitzua

Konstituzio plaza, 2 - Tel. 943483750 - Faxe 943483765 - udala_euskara@donostia.eus - www.donostiaeuskaraz.eus - www.donostia.eus
20003 Donostia

1.- Aurreko bileraren akta onartzea

Aurreko akta onartu da.

2.-Herri Partaidetza Zerbitzuko langilearen parte-hartzea

Olatz Estensoro Herri Partaidetza Zerbitzuko udal teknikaria etorri da bilerara Euskararen Kontseilu Sektorialaren jarraipena egitera. Bi urte dira Udalak Euskara Kontseilu Sektorialaren Araudiari onespina eman zionetik eta bertako funtzionamendua aztertzeraz etorri da udal teknikaria. Gauza bera egiten ari dira gainerako kontseiluetan. Prozesuaren berri eman du.

3.-Bageraren ordezkariaren aldaketaren berri ematea

Bagera Donostiako Euskaltzaleen Elkartek kontseiluan zuen ordezkaria aldatu du. Dani Goñiren ordeza, Zuriñe Gonzalez izango da ordezkaria eta, orain arte bezala, Ainara Vázquez ordezkaria.

4.-Euskara Zerbitzuaren 2018ko aurrekontu proiektua azaltzea

Lehendakariak azaroaren 7an Tokiko Gobernu Batzordeak onartutako aurrekontua azaldu du. Zuzentzeko epea zabalik dagoela eta abenduaren 22an onartzera eramango dela Udalbatzara jakinarazi du. Aurrekontu proiektu honek aldaketak izan ditzake oposizioeko taldeek egindako zuzenketa ondorioz. Datorren urteko kontseilu sektorialaren lehen bileran aurrekontuaren xehetasunak emango dira.

Lehendakariak azaldu du bi aldaketa nabarmendu daitezkeela iazko aurrekontutik:

1-Kirolean 15.000 euro gehiago egongo dira Kirol Klubetan KEES metodologia inplementatzeko.

2-Euskarak 365 egun dinamikaren barruan, "11 egun euskaraz" egitasmorako kontu sail berria ireki da 60.000 euroko partidarekin.

Bestalde, 55.000 euro gutxiago daude udal funtzionarioen euskalduntzerako diru partidan, azken urteetan diru partida horretan diru soberakina egon baita. Baina, oro har, lehenbiziko kapituluak 2017ko ekitaldian baino 6.000 bat euro gutxiago bakarrik izango ditu 2018koak, langile baten liberazio sindikala dela eta, honen soldata eta bere ordezkarena aurreikusitako behar direlako.

Azkenik gogoratu du 2017ko aurrekontuetan 40.000 euroko igoera egon zela euskara ikasteko diru laguntzetarako eta 2018an ez dela aurreikusten igoerarik alor horretan.

5.-HPSk eta Topaguneak proposatutako "Euskarak 365 egun: hizkuntza ohiturak eta gizarte aktibazioa" egitasmoa Donostian 2018an garatzeko aurreikusitako urratsen berri ematea. Eta 2017an Intxaurrondon eta Altzan aurrera eramaten ari diren egitasmoa azaltzea

Lehendakariak aipatu du Donostiak erronka honi heldu diola eta Bagera eta Udaleko Euskara Zerbitzua elkarlanean ari direla egitasmoaren nondik norakoak zehazteko. Horrela, urriaren 28an Bagerak jardunaldi batzuk antolatu zituen proiektuari buruz



Euskara Zerbitzua

Konstituzio plaza, 2 - Tel. 943483750 - Faxa 943483765 - udala_euskara@donostia.eus - www.donostiaeuskaraz.eus - www.donostia.eus
20003 Donostia

hausnartzen hasteko eta bigarren bilera ere egin zuen azaroaren 9an gaia lantzen jarraitzeko.

Donostiako Udaleko Euskara Zerbitzuak abenduaren 2an aurkeztuko du egitasmoa "Baietz 11 egun euskaraz Donostian" izenburua duen ekitaldian. Bertara hiriko erakunde eta gizarte eragileak gonbidatuko dira.

Egitasmo hau aurrera eramateko 60.000 euro aurreikusteaz gain, Euskara Zerbitzuak dituen beste diru partida batzuetatik ere diru gehiago bideratzea aurreikusi da. Guztira, 160.000 euro inguru izango dira modu batera edo bestera egitasmoarentzat.

Azkenik Altzan (Altza hadi 21 egun euskaraz) eta Intxaurrondon (Baietz 20 egun euskaraz Intxaurrondon) aurrera eramaten ari diren egitasmoei buruzko xehetasunak eman dira.

Euskara Zerbitzuko buruak bestalde gogoratu du Bagera eta Euskara Zerbitzua lanean ari direla jada HPSk eta Topaguneak diseinaturiko egitasmoa Donostiara ekartzeko. Besteak beste, dinamizatzailerak kontratatzea eta Batzorde Eragile bat sortzea aurreikusi dute. Horren berri emango dela aurrerago esan du.

6.-2017ko Euskararen Eguneko egitarauaren berri ematea

Egitaraua eta eranskailuak banatu dira. Abenduaren 2ko ekitaldiaren garrantzia azpimarratu du lehendakariak eta bertaratzeko gonbita egin du.

7.-"Merkataritzan eta Ostalaritzan ere euskaraz" egitasmoaren balantzea eta aurreikuspena

Lehendakariak emaitza orokorren berri eman du. Ondoren 2017an aurrera eramaten ari diren lanak azaldu ditu eta datorren urteko aurreikuspena ere azaldu du.

EHBilduko ordezkariak aipatu du hizkuntza paisaia lantzea garrantzitsua dela eta horretarako hizkuntza ofizialen eta beste hizkuntzen erabilera-jarraibideak zabaltzea lagungarria izan daitekeela.

Euskara Zerbitzuko atal buruak aipatu du hizkuntza paisaiaren gaia sakonago lantzeko egitasmo pilotua egitea aurreikusi dutela. Hasiera batean hainbat tabernetan eragiteko asmoa dagoela (menu bihurgailuaren berri eman eta abar) eta Gipuzkoako Ostalaritza Elkartearekin elkarlanean egingo dela.

8.-"Donostiako Udalean Euskararen Erabilera Normalizatzeko 6. plangintza aldiari buruzko informazioa

Lehendakariak adierazi du Udalak aurreko plana Eusko Jaurlaritzarena baino lehenago onartzeko aukera izan zuela baina oraingo honetan metodologia aldaketa bat egon denez (Bikain metodologian oinarrituta egongo da), litekeena dela aurreikusitakoa baino gehiago atzeratzea. Jaurlaritzak Udal plangintza guztiak modu berean eta irizpide bateratu batzuen arabera antolatzea planteatu du eta gauza bera egin nahi dute planak ebaluatzeko moduarekin.

Jaurlaritzak behin-behineko proposamen zirriborroa bidali du jada. Ponderazioak nolakoak eta zeren arabera egingo diren bertan azaltzen dira. Ahalegin handiena lan hizkuntzan eta erabileran jarri nahi da, %80 hain zuzen eta zerbitzu hizkuntzak, neurri handi batean helburuak beteta dituen alorra izanik, %20ko pisua izango du.



Euskara Zerbitzua

Konstituzio plaza, 2 - Tel. 943483750 - Faxe 943483765 - udala_euskara@donostia.eus - www.donostiaeuskaraz.eus - www.donostia.eus
20003 Donostia

Udal Planak Jaurilaritzaren aldeko txostena jaso behar du onartu aurretik. Aldeko txostena jasotzeko aplikazio bat bete beharko da eta Jaurilaritzak aurreikusi du 2018ko hasierarako bukatuta egongo dela aplikazio hori. Gauzak horrela, 2018ko lehen sei hilabeteen plana onartuta egotea espero da.

EH Bilduko ordezkariak galdetu du zeintzuk diren seigarren planaren helburuak, aldaketak ote dauden aurreko plangintzatik. Euskara Zerbitzuko buruak adierazi du jarraibideak ez direla aldatu, aurreko plangintzaren antzekoak direla. Kasuistikak ahalik eta gehien zehaztea dela orain helburua.

Egun Udal barruko kontraste lana egiten ari dira.

EH Bilduko ordezkariak landuta dauden jarraibideen berri ematea eskatu du. Lehendakariak erantzun du aurrerago horren berri emango dutela.

Bestalde, EH Bilduko ordezkariak galdetu du "Jendaurrean erabili" proiektua zein egoeretan dagoen.

Lehendakariak adierazi du azken txostena jasotzeko zain gaudela baina Udalak proiektuan adierazitako konpromisoak hartuko dituela beste zenbait eragilerekin batera. Proiektua azken fasean sartuta dago, txostena ere aurkeztu da baina gai hori udalean hobeto lantzea merezi duela.

Bestalde Kutxako ordezkariak gogoratu du proiektua lantzearekin batera bilera bat egin dela hainbat komunikabiderekin honen berri eman eta hedabideek ez dezaten egitasmoa ikusi proiektua eraso gisa. Ikusteke dago hedabideren erantzuna praktikan zein izango den (esaterako prentsaurreko horietara kazetari elebidunak bidaliz eta abar).

Euskarak Batzen-eko ordezkariak aipatu du zein garrantzitsua den begiraleak eta kirol entrenatzaileak euskaldunak izatea eskolaz kanpoko jardueretan euskararen erabilera bermatuta egon dadin. Alde horretatik, Eusko Jaurilaritzak kirolarekin lotura duen lanbideei buruzko lege bat kaleratu duela eta garrantzitsua litzatekeela hor euskarari behar den lekua ematea, irizpideak jartzea bertako entrenatzaileek euskararen ezagutza bermatuta izatea esaterako. Udala horren inguruan zerbait egiteko asmorik ote duen galdetu du

Hiriko atal buruak erantzun dio "Eskola Kirola"ren gaia jorratzeko Gipuzkoako Foru Aldundiak eraturako lan mahaian gaia jorratu zela iaz eta lege proposamen hori aldatzeko eta hizkuntza irizpideak jartzeko proposamena helarazi zitzaiola Jaurilaritzari.

Eta horrela, bilera bukatutzat eman da 19:30ean.